euskal dunon
Egunkaria
ASTEAZKENA
2001eko uztailaren 25a – XII. urtea – 3.302. zenbakia – Salneurria: 125 pta. 6 libera

LEHERKETA ALACANTEN

Ustezko etakide bat hil da Torreviejan, lehergailua esku artean zartatuta

Polizia iturrien arabera, baliteke Olaia Castresana donostiarra izatea hildakoa

IHESA. Poliziak azaldu zuen Castresanaren mutil-lagun Anartz Oiartzabalen bila dabilela

BERTSIOA. Poliziak gas leherketaren sasi-bertsioa zabaldu zuen hasieran, mutil-laguna atxilotzeko asmoz /6

TORTURAK



Zortzi guardia zibil zigortu dituzte torturatzeagatik

Torturak duela 20 urte egin zizkieten zazpi zornotzarri /8-9

HEDABIDEAK



BOB EDME

Martxelo Otamendi, Emile Larre eta Jean-Battitte Dirassar atzoko agerraldian.

‘Herria’-k eta EGUNKARIAk lankidetza hitzarmena sinatu dute Baionan

Ipar Euskal Herriko astekariko herrietako berriak EGUNKARIAren webgunean irakur daitezke aurrerantzean /11

PROTOKOLOA

Ibarretxe Espainiako erregearekin bildu da Madrilen, Zarzuelan

Protokolo bileran, EAEko lehendakariak adierazi zion bere lehentasuna izango dela herritar guztien askatasuna bermatzea eta indarkeriaren aurka borroka egitea. /9

GLOBALIZAZIOAREN KONTRAKO MOBILIZAZIOAK



JOXE LACALLE

Protestak Italiako kontsulatuetan

Genoako goi bileran Italiako Gobernuak izandako jarrera salatzeko, protesta egin zuten Hemen eta Munduan taldekoek Italiak Donostian, Bilbon eta Iruñean —argarkian— dituen kontsulatuetan. Poliziak sei lagun atxilotu zituen Iruñean. /15